


Hizkuntzen labirintoetan barna



gaiak jorratuz.

Batez ere, aldizkariak ditut gogoan. Aldizkarien mundua liluragarria da; kulturaren alor ia guztiakin jartzen gaitu harremanetan, baita kirolaren eta zientziaren alorrekin ere. Informazioaren mundua ahaztu gabe: prentsa, alegia. Horiek guztiak, terminologiarik “egungoena” jarriko digute begien aurrean.



ahozko hizkeraren sekretuak agerian jartzeko; hala da. Eta ingelesaren kasuan, adibidez, hori begibistan dago. Baina hizkuntza guztiakin berdin gertatzen da. Ingelesa jarri dut adibide gisa, fonetikoki planteatu ohi dizkigun ageriko zailtasunengatik. Horrez gain, ikasi nahi dugun hizkuntzari berez dagozkion gizartean eta kulturaren erabat murgilduta bizi ez garenez, horrek aurrean jartzen dizkigun mugez ohartzea ere ez dator batere

Atzerriko hizkuntza bat ikasten duzunean, ahal den guztia egin behar duzu ikaskuntza hori ahalik eta jostagarriena izan dadin.

Den-denak du balio, motibatzen zaituen guztia aprobetxatu behar da.

Liburuak ongi daude; gauza asko irakatsi ahal digute. Baina Kioskorik apalena ere informazio-iturri agorrezina izan daiteke, eta gainera, jostatzeari eta ezaupide berriak gureganatzeari utzi gabe, era askotako



Erreportaje eta artikuluetan erabilitako idazkera nahiko laua izaten da, esan nahi dut ez dela erretorikoegia izaten, eta beraz, “benetako” hizkeratik, hau da, ahozko adierazpenetik hurbilago dago. Dena den, kasu bereziak ere badaude; esaterako, National Geographic-en erabiltzen duten ingelesa euren argazkiak bezainbeste zaintzen dutela esango banu, ez dut uste gezurrik esango nukeenik.

Irakurketa, bestalde, ez da biderik onena



gaizki.

Duela 36 urte ingelesa eta frantsesa biziki ikasteari heldu nionean, helburu bat jarri nion neure buruari: bi hizkuntza horietatik gaztelaniara eta euskarara itzultzeko gai izatea. Eta helburu hori bete egin dut, soberan bete ere.

Egia da ikaragarri zailak diren testuekin topo egin dezakegula; beste zenbaitetan, aurrean ditugun testuek aldeztu aurretiko trebakuntza bat eskatuko digute: antzeko testuak irakurri, beste itzulpen batzuk nola egin diren aztertu, glosarioak eta memoriak eskuratu... Espezializazio handiko testuak direnean, bezero asko saiatzen dira arlo horretako profesional batekin harremanetan jartzen (adibidez, testu juridiko korapilatsu bat itzultzeko, itzultzen dakien abokatu bat bilatzea ez da horren ez-ohikoa). Beste batzuetan, beharrezkoa izaten da natibo batengana jotzea laguntza eske, itzuli nahi ditugun zenbait esapide hitz-jokoei, testuinguru sozialei, eta abarrei lotuta daudenean.

Baina gauza horiek normalak dira, eta itzultzearen "jolasaren" parte dira.



Ni, ingeleseko eta frantseseko interprete gisa, ez nintzateke oso urrun iritsiko; baina ingeleseko eta frantseseko itzultzaile gisa, gauza asko egin ditzaket, eta ondo.

Nire ingelesa eta nire frantsesa lantzen jarraitze aldera, erabili ohi ditudan aldizkarien azaletako batzuk tartekatu dizkizuet artikulu honetan. Eta ikasitakoa gordetzeko, gogorarazteko eta atxikitzeke ez ezik, hiztegi berria asimilatzeke eta, azken batean, edozein hizkuntza ikasteak aurrean jartzen

dizkigun mugez apur bat harantzago joateko ere balio didate.

Den-dena ez da teknika ordea. Herrialde horietan nola bizi diren, zer-nolako gaurkotasuna duten, hizkuntza horien hiztunen arreta erakartzen duten albisteak zeintzuk diren, eta abar, eta abar ere garrantzitsuak dira. Gure bihotzen taupak eta gizarte horienak nolabait sinkronizatzean datza kontua. Zeren, gizarte horiek erakartzen ez bagaituzte, orduan zertarako hartu hainbeste neke haien hizkuntzak ikasten...?

Eta frantses edo ingeles esaldi jatorrak irakurtzean jatortasun horretaz ohartzeak, jatortasun hori



sentitzeak ematen digun plazeraz, zer esan? Horrek ere esan nahi du-eta hizkuntza horien gaineko ezagutza eraman dugula beste maila batera, eta ondorioz, apur bat “ingeles” eta apur bat “frantses” bilakatu garela. Euskarak aspalditik daki hori: euskalduna = euskara + duna = euskaraz jabe dena. Eta hizkuntza guztiekin gertatzen da berdin. Hizkuntza bat gureganatzea ez da huskeria bat; neke, ahalegin eta sakrifizio asko eskatzen ditu. Une txar eta onak dakartza berekin. Baina, une jakin batean, ahalegin horren fruitua biltzen hasten zara. Eta orduan hartzen du zentzua egin duzun ahaleginak, lortu nahi zenuenak, jomugatik gertuago zein urrunago geratuta ere. Hizkuntza bat halako aberri bat ere badela esan nahi dut –barruan daramagun aberri bat.



Eta jomugak aipatu ditudanez, ez da beharrezkoa gogoraraztea zeinen “subjektiboa” gerta daitekeen hizkuntza baten ikaskuntza. Deabruaren txantxa dirudi askotan. Horra froga: zenbat pertsona hasten diren hizkuntza bat ikasten, eta zeinen gutxik amaitzen duten hizkuntza horretan idazten (sekulako txikizioak egin gabe).



Artikulu honetan tartekatu ditudan National Geographic-en ingelesezko aleak Madrileko mutil bati erosi nizkion Interneten bidez. Zaharrak badira ere, gaurkotasuna ez dute hain erraz galdu. Bakoitza 2 euroan atera zitzaidala uste dut, eta sei edo zazpi erosi nituen. Gehi beste bi euro mezularitzaren truke.

Frantsesaren kasuan, Irundik gertu bizi garenek erraza daukagu. Egia esan, Donostian bertan eskura daitezke aldizkariak frantsesez eta ingelesez (National Geographic barne). Baina Hendaiako Tren Geltokira hurbiltzen bazara, aldizkariz eta egunkariz ezin hobeto horniturik dagoen kiosko eder bat topatuko duzu bertan,

frantziar merkatuko produkturik onenekin.

Eta oso zorrotza bazara, ziur nago Baionako liburu-denda on batean punta-puntako materialik onenaz hornitzeko arazo gutxi edukiko duzula, frantsesez egin beharreko irakurketak kolorez eta dibertsioz margotze aldera.

Bestalde, National Geographic-en artikulu bat lantzeko orduan, bi jarrera har ditzakegu. Adibidez, itzulpen-enkargu bat balitz bezala joka dezakegu, eta ondorioz, testua ehuneko ehunean ulertzea hartuko dugu jomugatzat. Lan askotxo eskatzen du, batez ere aldizkari osoarekin eginez gero, eta batez ere ingelesez, hiztegi-oparotasun



handiagatik gehienbat, baina asko ikasten da horrela. Niri hiztegi-zerrendak egitea gustatzen zait, eta gero horiek apur bat buruz ikasi, tematu gabe, baina pittin bat buruan atxikitzen saiatuz, terminologia ezaguna egin dakidan hurrengo baterako. Bigarren jarrera, berriz, irakurketa lasaiago bat egitean datza, esaldi baten zentzua benetan eragozten diguten terminoak bakarrik kontsultatuz hiztegia;

Egia esateko, une batera heltzen gara (heldu behar genuke), non, hizkuntza “ikasteari” utzi eta hizkuntza horretan “bizitzen” hasten garen, bakoitzaren baliabideak direnak direla...

(jarraituko du)